

# GRIPEAREN TXERTAKETA HAURDUNENGAN GALDERA ETA ERANTZUNAK

## ZER DA GRIPEA?

Gripea birus batek eragindako arnas gaixotasun infekzioso da. Birusa erraz transmititzen da eta azkar zabaltzen da (batez ere udazkenean eta neguan).

## ZEINTZUK DIRA GRIPEAREN SINTOMAK?

Gripea duten pertsonak, askotan, sintoma hauetako batzuk izaten dituzte: sukarra, eztarriko mina, sudurreko mukositatea, ezul lehorra, zefalea, giharretako mina, nekea.

Gaixotasunaren sintomak 1. eta 4. egunen bitartean hasten dira birusa organismoan sartu ondoren. Pertsona batzuk gripearen birusaz infektatzen dira, baina ez dute gaixotasuna garatzen; hala ere, pertsona horiek gaixotasuna beste batzuei transmiti diezaiekete.

## NOLA PREBENITU DAITEKE GRIPEA?

Txertaketa da prebentziorako modurik eraginkorrena. Txertatzeaz gain, honako neurri hauek gomendatzen dira:

- Eztul edo doministiku egitean ahoa estali, ahal den einan, erabilera bakarreko zapiekin.
- Eskuak sarri garbitu, batez ere eztul edo doministiku egin ondoren.
- Saiatu doministiku egitean edo sudurreko jariakinak garbitzean erabilitako zapiak ez berrerabiltzen.
- Ahal den neurrian, beste pertsona batzuekin kontaktua mugatzea, ondoeza, sukarra edo gripearen bestelako sintomak izanez gero, kutsatzea saihesteko.
- Ez izan kontakturik gaixoekin, ez gaitzaten kutsatu.

## HAURDUN BANAGO, TXERTOIA HARTU BEHAR DUT?

Haurdunei txertoa jartzea gomendatzen da, haurdunaldiaren edozein hiruhilekotan, hiru ondorio eragiten baititu:

- Amaren babesia.
- Jaioberrien babesia.
- Bularreko haurraren babesia bizitzako lehen hilabeteetan.

Gripeak haurdunaldian eragin dezakeen erikortasuna eta hilkortasuna beste arrisku-talde batzuetarako deskribatutakoaren antzekoa da. Haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan gripearen birusak eragindako infekzioa bihotz-malformazioak, erbi-ezpaina eta hodi neuralaren akatsak areagotzearekin lotu da, eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoan abortu eta erditze goiztiar gehiago izatearekin.

## HAURDUNALDIAN, NOIZ GOMENDATZEN DA TXERTOIA?

Gripearen aurkako txertaketa-kanpainan, urtero, udazkenean, haurdunei inaktibatutako txertoaren dosi bat ematea gomendatzen da, haurdunaldiaren edozein hiruhilekotan.

## SEGURUA AL DA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA HURDUNALDIAN?

Bai, gripea eragin ezin duen txertoa da, eta segurua da haurdunaldian.

Hala eta guztiz ere, txertoek, beste edozein sendagaik bezala, kontrako ondorioak izan ditzakete. Eragin horiek ez dira oso ohikoak, eta arinak izaten dira (ziztadaren zonako eragozpenak), eta ez dute eraginik haurraren osasunean.

## ZEIN KASUTAN DAGO KONTRAIKATUTA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA?

- Printzipio aktibo bati edo txertoaren osagai bati bati alergia dioten haurdun daudenak.
- Aurretik gripearen aurkako txerto batekiko erreakzio alergiko larria izan duten haurdunak.
- Sukarra edo infekzio akutua duten haurdunak: txertaketa atzeratu egin behar da sendatu arte.

## HAURDUNALDI BAKOITZEAN EMAN BEHAR DA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOAK?

Bai. Beharrezkoa da haurdunaldi bakoitzean gripearen aurkako txertoa jartzea, bi arrazoiengatik:

- Gripearen birusek gaitasun handia dute azaleko antigenoak aldatzeko (proteinak, birusak infektatzeko duen gaitasunean garrantzi berezia dutenak). Aldaketa horien ondorioz, gripearen birus berriak agertzen dira, eta gizakiak ez du birus horien aurrean babesik. Horregatik, txertoa urtero eguneratu behar da.
- Gainera, gripearen aurkako txertaketari esker pertsonak sortutako antigorputzek behera egiten dute denborarekin.

## POSIBLE AL DA KUKUTXEZTULAREN ETA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOAK EGUN BEREAN HARTZEA?

Bai, bi txertoak emateko unea bat badator, bisita berean eman dezakete, baina bakoitza beso desberdin batean. Halaber, egun desberdinetan ere eman daitezke, inolako denbora-tarte zehatzik gorde beharrik gabe. Haurdunari kukutxeztula txertatzea gomendatzen da haurdunaldiaren 27. astetik aurrera, baina, ahal dela, 27. edo 28. astean.

### *Otros enlaces de interés*

- [Campaña de vacunación 2023 - Osasun Eskola \(euskadi.eus\)](https://euskadi.eus)
- [VACUNACION GRIPE EMBARAZADAS \(sanidad.gob.es\)](https://sanidad.gob.es)